

2014AN OHOREZKO EUSKALTZAIN IZENDATUENTZAKO HARRERA-HITZAK

Euskaltzain oso, urgazle eta ohorezkook, jaun-andre eta adiskideok, agur guztioi.

Euskaltzaindiaren idazkari akademikoari gaur berba batzuk esatea dagokio. Jakina, guztiei zuzenduriko hitzak izango dira, baina bereziki gaur ohorezko izendapenaren diploma eta ezaugarriak jasoko dituzunoi begira, Euskal Hizkuntzaren Akademia honetara ongi etorria emateko.

Hizkuntza guztiona da, Natura edo kultura bezala, baina edonon eta edonoiz predikatzen den gizaki guztion berdintasuna gora behera, eguneroko praktikan argi ikusten dugu herritar batzuk balio horiek, maitasun, errespetu eta harrotasunez zaintzen ahalegintzen diren bitartean, horrela guztion ondarea kontserbatzen eta etorkizunekoentzat iraunarazten, badirela, bestetik, gure artean berdin jokatzeko ez dutenak, inguruak hondatzen ibiltzen direnak. Halakoek diotenez, Natura guztiona da, gauza publikoak ororenak dira, eta horiekin bakoitzak nahi duena egin dezake.

Halere, zaintzaileen eta hondatzaileen lanaren ondorioak ikusita, askotxo gara pentsatzen dugunok, teoriatzko berdintasun hori praktikan, tamalez, ez dela hain egiazkoa. Bai, euskara ere guztiona dela aldarrikatzen da maiz bazterretan, eta zinez hala izan beharko lukeela uste dut. Baina gero, argi dago guztion esku egon den balio hori, herritar batzuek, herrizaletasunez, kultura zentzuaz, sorterriarenganako atxikimenduaz, bera aintzat hartu, ikasi, landu, jagon, goratu eta gizarteko toki guztietan zabaltzen saiatu direla, hizkuntzazko euskalduntasun praktikoa hori harrotasunaz jendartean erabiltzen eta bere balio-eremua ere etengabe hedatzen.

Holako herritarren herrigintza ageria da, egunerokoa, ez du nahitaezkoa ahots gorako aldarrikapen zaratatsurik behar, ez eta aldean bandera-ikurrinik, ez propaganda politikorik ere. Eta hori ere bere fruituetan izaten da ezagun. Hor daude ikastolak, alfabetatze-ikastaroak, ikasbide eta hiztegiak, testuliburuak, haurrentzako ipuinak, bertso-saioak, eleberriak, aldizkariak, kantaldiak, diskoak, irrati-saioak, gure mintzairaren sustrai bila eginiko ikerketak, folklore eta herri usadioen berreskurapena...

Gaur, zorionez, autonomia politikoa dugunetik, botere publikoak arduratzen dira balio horiek sustatzen, bultzatzen eta laguntzen, baina lehentxoago ere kultur ekintza guztiok nola edo hala, egin egiten ziren, eta ez zituen goiko inork finantzatzen.

Gogora dezagun, gure hizkuntza, gure kultura eta euskaldun jendea baztertu eta zapaldurik egon ziren urte beltz luzeetan ere, balio horien aldeko ekintzaile suharrak ere ibili zirela jo eta ke, batzutan lanean eta bestetzuetan azpilanean, konta ezineko oztopo, eragozpen eta debekuak gainditzen. Eta etsaien muzinak mingarriak izaten baziren, maiz are mingarriagoak gertatzen ziren auzo ardurabakoen ezinulertuak.

Azkenean pertsona horien ahaleginari esker lortu du gure Herriak hogeita batgarren mendearen hasieran, oraindik burua harrotasunez euskaldun eta tente eramatea. Bidezkoa da, beraz, urte askotako lan isil, eskerga eta ordaingabe hori, noizbait publikoki aitortu, txalotu eta eskertua ere izatea. Eta horixe da, gura genukeen baino era apalagoan bada ere, Euskaltzaindiak gaur eta hemen ohorezko guztioi eskaini nahi dizuen omenaldia, zuek guztiok, adiskideok, ondo merezia duzue-eta.

Era askotako lanak egin dituzue, bakoitzak bere arloan, ezberdinak, baina guztiek helburu berbera izan dute: Euskal hizkuntza eta gure herri nortasuna aurrera eramatea, Euskal Herria iraunaraztea. Gaurdanik ofizialki ohorezko euskaltzainak izango zarete, baina gogoan izan gaur ez zenuketela diploma hori jasoko, aspaldidanik eta urte askotan, zuen praktikan jada ohorezko euskaldunak izan ez bazinete. Izan ere, zuei ohore hori ematean, zuek gure artean hartzean, euskaltzain guztiok ere ohoraturik sentitzen gara. Zuekin zorrean egon gara eta gaur zor hori kitatzeko aukera daukagu.

Beraz, berriz ere, besoak zabalik ongiatorria ematen dizuegu.

Eskerrik asko, lagunok.

Xabier Kintana Urtiaga
Euskaltzaindiaren idazkaria
2014ko uztailaren 18an